

DONEZTEBEKO INAUTERIAK

Xarelan

M8

AURKIBIDEA

1*GRABAKETA	
2*TRANSKRIBAPENA "Euskalkian".....	2-3-4
3*TRANSKRIBAPENA "Batuan".....	5-6-7
4*AUKERAKETAREN ZERGATIA.....	8
5*KONPARAKETA.....	8
6*LIZARRAKOEI BURUZKO ARGIBIDEAK:	
6.A.-GERRA AURREKOA.....	9
6.B.-ALDABIKAREN BIZITZA.....	10
6.C.-LIZARRAKO INAUTERIETAKO PERTSONAIAK...	11
7*BIBLIOGRAFIA.....	12

2. INAUTERIAK (euskalkian)

E- Joxe Gabriel, bihar xumiekin jun oti biharko gara Sunbillara. Jo, lehengutik nola kanbitu hin diotek, eh? Lehenigo etzen holako inauterik itten, ta oain, Sunbillanberin ze lanak itten ttuten, karrozak ta itten, eh?
Zuk, ze itten zenuten inauteriten?

G- Gu, hantxe ortxili eguerditen juntatzen ginen zortzi bat lagun ta hantxe, pañulua lepun patu ta hantxe bazkaldu, bazkaldu... ta gero hasten ginen hori, bueltaka herrin, puxkak biltzen ta hola kordionistekin, ta gero jendia itten zen juntatzen, neskak ta hola, eta hantxe buelta eman. Afaltzeko, berrogehi bat lagun juntatzen ginen ta hantxe, gero, hori, kordionakin dantzan aitu.

E- Miño, beztitu egiten al ziten, ez? Ze patzen ziñuten?

G- Ah, pañulua lepun.

E- Kruzatua.

G- Eta bertze bat kruzatua lepotik betti, besapin ta hortxe, gure disfrazta ura zen.

E- Ta, itxin ta, Labainen ematen ziren, ze maten ziren Donamarian, Labainen arraultzik ta naranjak ta hola. Donamarin ze maten zen?

G- Ba, arraultza ta ziztorra ta holako puxkak.

E- Ta gero haiekin ze itten zenuten, ostatun jan?

G- Bai, baña azken egunin jaten giñun guk, gu hiltzen gintun igual bildotsak ta bildotsa jan eta gero, azken egunin, ortzilekin hasi ta jaten giñun ortzilin eta lanbata bildotsa, ta igandin puxkak jaten giñun, berentzeko ta afaltzeko ta hola, ta juntatzen zen kriston jende pila, zaharra ta dena juntatzen ginen igandetan, ta kuadrila handia han.

E- Labainen ere bai, Labainen, miño Labainen ortzilikin hasi, lanbata, igandia, lanbata goizin biltzen ziren puxkak eta puxka haiek jaten zituzten lanbata ta igandin bebai, miño zarrak etziren biltzen, gazteak bakarra jaten zuten, ta generalin mutilak hutsak. Gu neskak egoten ginen afaldu ta gero bailera. Goizeko lauak bostak arte kordiona izaten zen herriko ostatun ta bailen ibiltzen ginen ta ya esta! Inautik iten ziren Labainin mutilak, ta gero neskak bailera joaten ginen, miño puxkak ta biltzen etzen ibiltzen Labainen neskak. Miño oain, pues, oain haurrek, neskak ta dena biltzen dire.

G- Bai, ta lehen tarteka eiten zen karroza ta beti izaten zen karroza bera, ezkontzan bat, urtero gauz bera, pareja bat ezkondua eta hantxe karrua hura ibili han tarteka bueltaka. Baina hori igandin ibiltzen zen, generalin igande egunin ezkontza zelebratzen.

E- Ta gure ama ta, denek berriz, gure ama ta kontatzen dute zaputzero mozorro beltza ta mozorro zuri. Mozorro zuri zirela aurpegia airian zutenak, beltzak aurpegi tapatukin. Eta haurrak ta ikusten bazittuten plazan ta hasitzen zirela gerrikua kentzen ta ordun ostiaka eskapa haurrak, harrapatzen bazittuten juka ibiltzen zittutela, etzutela nahi zergatik ikusi haurrak plazan ta, ta eskapaka oralmen ta dena, hori kontatzen dute, haurrak zirela, pues, arrunt diferente itten zela, mutilek bakarrik iten zutela ta, bueno, edozein gauza hartzen, harrapatzen ba zittuten umik joka ta arrunt ta arrunt iñaute trastik izaten zirela len.

G- Bueno, nik ere hasi nintzeliken, pues... igual hamasei urtetan dola, ordun haurrak hamasei urtetik bettikuk ez ziren joaten, ni hasi nintzen hamasei urtekin juntatzen, ta bitartin ez nintzen behin ere arrimatzen inauterietara, ez zen kostunbrerik, geroztik hasia da, oain haurrak eta dena, jaten dire. Lehenago bakarra izaten zen hamasei-hamazazpi urtetik goitiko, ta neskak ere berdin, handik goitikuk biltzen ziren.

E- Ah, pues Labainin neskak ere ez ginen biltzen, oain hasi dire neskak ta haurrak Labainen ere. Bertzaldere, Labainen mutilak hutsak ibiltzen ziren kordionakin, neskak ta haurrak ba...

Ta oain, Ittongo ta Zubietako inauterik ere badire, hor zanpantzarrak ta zerrikeri bat ere ateko dute.

G- Zubitan behinpin bai.

E- Azienden bat hil edo ateko dute.

G- Astakeri batzuk iñen dituzte.

E- Bai. Ta gero Doneztekek, Doneztekek haurrak beztitzen ditugu ta aterako gara, hemen ere karrozak ta itten dute.

G- Bai, gaurko egunin hemen ta ya da karrozak ta. Lan gehiago iten da, lehen ez zen lanik iten, inauteritan bakarra besta itten zen. Oain ya karrozak ta... Sunbillan berin ze lanak iten diren.

Oain da ikusteko, inauteria da ikusteko. Leno, leno zen hutsa, besta zen.

E- Ya, kanbitu da lehengutik oraingora.

3. INAUTERIAK (batuan)

E- Joxe Gabriel, bihar umeeekin joan beharko ote gara Sunbillara. Jo, lehengotik nola aldatu egin diren, e? Lehenago ez zen horrelako inauteririk egiten, eta orain, Sunbillan berriz, zer lan egiten duten, karrozak eta egiten e?

G- Guk, hantxe ortziral eguerdietan juntatzen ginen zortzi bat lagun eta hantxe zapia lepoan lotu eta hantxe bazkaldu, bazkaldu... eta gero hasten ginen hori, herritik bueltaka, puxkak biltzen eta horrela akordionistekin, eta gero jendea juntatzen zen, neskak eta horrela, eta hantxe buelta eman. Afaltzeko, berrogei bat lagun juntatzen ginen eta hantxe, gero, hori akordionarekin dantzan ibili.

E- Baina, jantzi egiten zineten ez? Zer jartzen zenuten?

G- Ah, zapia lepoan.

E- Gurutzatua.

G- Eta beste bat gurutzatua lepotik behera, besapean, eta hortxe gure moxorroa hura zen.

E- Eta, etxean eta; Labainen ematen ziren, zer ematen zuten Donamarian, Labainen, arrautzak eta laranjak eta horrelakoak. Donamarin zer ematen zen?

G- Ba, arrautza eta txistorra eta horrelako janariak.

E- Eta gero haiekin zer egiten zenuten, ostatuan jan?

G- Bai, baina azken egunean jaten genituen guk, gu hiltzen genituen agian bildotsak, eta bildotsa jan eta gero, azken egunean, ortziralarekin hasi eta jaten genuen eta larunbatean bildotsa, eta igandean janariak jaten genituen, bazkaltzeko eta afaltzeko eta horrela, eta juntatzen zen kriston jende pila, zaharra eta dena biltzen ginen igandeetan, eta han kuadrila handia.

E- Labainen ere bai, Labainen, baino Labainen ortziralarekin hasi, larunbata, igandea, larunbat goizean biltzen ziren puxkak eta puxkak haiek jaten zituzten larunbatean eta igandean ere bai, baina zaharrak ez ziren biltzen, gazteak bakarrik jaten zuten, eta normalean mutilak soilik. Gu, neskak egoten ginen afaldu eta gero bailean. Goizeko lauak, bostak arte akordeoia izaten zen herriko ostatuan eta dantzatzen ibiltzen ginen, eta hori da guztia. Inauteriak, Labainen mutilek egiten zituzten, eta gero neskak dantzaldira joaten ginen, baina puxkak biltzen eta ez ziren ibiltzen Labainen neskak. Baina orain, ba orain haurrak, neskak eta denak ibiltzen dira.

G- Bai, eta lehenago tarteka egiten zen karroza, eta beti izaten zen karroza berdina, ezkontzaren bat, urtero gauza bera, bikote bat ezkontuta, eta hantxe gudi hura ibiltzen zen han tarteka bueltaka. Baina hori igandean izaten zen, normalean igandean ospatzen zen ezkontza.

E- Eta gure ama eta, denek berriz, gure amak kontatzen du zaputzero mozorro beltza eta mozorro txuria. Mozorro zuri zirela aurpegia desestaila zutenak, beltzak aurpegia estaliarekin. Eta haurrak eta, ikusten bazituzten enparantzan eta, hasten zirela gerrikoa kentzen eta orduan ostikatzen, haurrak ihes, harrapatzen bazituzten joka ibiltzen zituztela, ez zutelako nahi ikusi haurrak enparantzan eta Iheska, harrapaketa eta dena hori kontatzen dute, haurrak zirela ba, desberdina egiten zela, mutilak bakarrik egiten zutela eta, bueno, edozein gauza hartzen, harrapatzen bazituzten umeak joka eta oso oso inauteri trasteak izaten zirela lehen.

G- Beno, nik ere bai hasi nintzatekeen, ba... agian hamasei urterekin edo horrela, orduan haurrak hamasei urtetik beherakoak ez ziren joaten, ni hasi nintzen hamasei urterekin juntatzen, eta bitartean ez nintzen behin ere hurbildu inauterietara, ez zen ohiturarik, geroztik hasia da, orain haurrak eta dena joaten dira, lehenago bakarrik izaten ziren hamasei-hamazazpi urtetik gorakoak, eta neskak ere berdin, handik gorakoak biltzen ziren.

E- Ah, ba Labainen neskak ere ez ginen biltzen, orain hasi dira neskak eta haurrak Labainen ere. Beste aldetik Labainen mutilak soilik ibiltzen ziren akordioarekin, neskak eta haurrak...

Ta orain, Iturengo eta Zubietako inauteriak ere badira, hor zanpantzarrak eta zerrikiren bat aterako dute.

G- Zubietan behinik behin bai.

E- Aziendaren bat hil edo aterako dute.

G- Astakeria batzuk egiten dituzte.

E- Bai. Eta gero Doneztebekoak, Doneztebeko haurrak janzten ditugu eta aterako gara, hemen ere karrozak eta egiten dituzte.

G- Bai, gaur egun, hemen dena karrozak dira, lan gehiago egiten da, lehen ez zen lanik egiten, inauterietan bakarrik festa egiten zen. Orain, karrozak eta... Sunbillan beran zeinen lanak egiten diren.

Orain, ikusteko da, inauteria ikusteko da, lehen soilik festa zen.

E- Bai, lehendik hona aldatu da.

4. ZERGATIA

Inauterien gaia aukeratu nuen, laster iritsi behar zirelako eta egun horiek oso gustukoak ditudalako. Lizarrako ikastolan, txikia nintzenetik parte hartu dut, txatxoz, palokiz, sorginez, paloki etnografikoz etab. janzten, festa handi bat egiten du ikastolak eta haur, gazte eta handi askok parte hartzen dute, Nafarroako herri desberdinen pertsonaiez mozorrotuz. Eta leku desberdinetako ohiturak eta historia ezagutzeko balio duelako.

Lekuaren aukeraketari dagokionez, bere euskaragatik da, udan, Lekarozen egon nintzen udaleku batean, eta herri hauetako batzuk, Elizondo, Donamaria, Doneztebe... bisitatzean, hango jendeak euskaraz nola hitz egiten zuten arraroa egiten zitzaidan, txikitatik cuskara ikasten egon eta gero oso zaila egiten baitzitzaidan esaten zutena ulertzea. Orduan, lehiaketaren berri izan nuenean, amari, egiteko prest nengoela esan nion, baina ez nekien nori egin grabaketa eta amak, berarekin Doneztebeko neska batek lan egiten zuela esaterakoan berari laguntza eskatu nion.

Azkenean, Donezteben bizi den neska horren laguna den bikote bati egin nion, gizona Donamariakoa eta emakumea Labaienekoa direlarik. Hori dela eta, Baztaneko bi herri txikietan aintzinako inauteriak ospatzen ziren era erakusten digu, gaur egungoekin konparatuz.

5. KONPARAKETA

Inauteriak, lehen, janaria biltzeko eta egiten zen, grabaketan esaten duten bezala, herrian zehar ibiltzen ziren kordioneekin dantzatzen, etxez etxe jatekoren bat eskatuz gero guztien artean afaltzeko. Orain, berriz, haurrak arratsaldean ateratzen dira eta meriendatu egiten dute herriko enparantzan, udalak kontratatutako orkestra baten musikarekin. Gazteak berriz, gauean atera eta tabernetan zehar ibiltzen dira dantzatzen eta edaten.

Aintzinako inauterietan, etxetik edota nekazaritzarako zuten edozein tresnarekin mozorrotzen ziren herri batzuetan, beste batzuetan berriz animalien larruekin. Gaur egun hori ere desagertu egin da eta dirutza handia gastatzen du jendeak mozorroetan, lehen ez bezala etxean egiten baitzen, gaur tela erosi eta edozein modistengana eramaten da jostarazteko, diru gehiegi gastatzen dugu egun baterako.

Inauteri berri hauetan haur, gazte eta agureak ateratzen dira, grabaketan horri buruz esaten duena aldatu dela ohartuz, hamasei-hamazazpi urtetik gorako neska-mutilek bakarrik parte har zezaketen festa honetan, eta herri batzuetan mutilek soilik. Mozorrotuta zegoen jendea, haurrak eta jo egiten zituztela jartzen du baina hori ez da orain gertatzen, orain nahi duten guztiek atera daitezke lasai.

Ondorio garbi bat da, lehen garizuma zetorrela eta horregatik egun horietan asko jaten zen, gaur egun betetzen ez denez, inauteriak aldatu egin dira eta alai egoteko festa da soilik.

6.A. GERRA AURREKOA

Soldaduskara joan behar ziren gazteak ateratzen omen ziren, zerriki, txistorra eta diru eske, Soldaduskara joan behar zirenez ezin baitzuten etxean lan egin eta egun horretan ateratzen zutena lagungarria zuten.

Errepublikara garaian (1931-1936), askatasun gehiago egotearen ondorioz hasi ziren inauteriak ospatzen, hau da, mozorrotzen eta jatekoak eskatzen.

Neguan, nekazaritzan lan gutxiago zegoela aprobetxatuz, pare bat egun hartzen zituzten libre eta nekazaritzako tresnak(galbahea, zaku zaharra...) erabiliz mozorrotzen ziren aurpegia eta dena tela batekin estaliz. "Palokia" delakoa eratzen zuten Lizarran, eta diotenez txorimaloaren itxura lortzen zuten.

Antzerki xelebreak egiten omen ziren, pertsonai txarren istorioak kontarazteko, eta hemen, Lizarran, Aldabika aukeratu zuten, esaera zaharretan askotan agertzen baitzen bere izena.

1936an, gerra hasi orduko inauteriak debekatu egin zituzten erlijioaren kontra zihoazela uste zen eta. Lizarran, berrogei urtez baino gehiago egon zen jendea inauteriak ospatu gabe, baina azkenaldi honetan, agure zaharrei galdetuz, inauteriak ospatzeko ohitura berreskuratu egin da.

6.B. ALDABIKAREN BIZITZA

Joan den mendeko azken laurdenean, azken karlistada amaitu ondoren, nekazaritza suntsiturik zegoelarik, herriko jendea gosez zebilen. Eta askok, bere lapurretaz besteen kontu ahalik eta hobe bizitzeko asmoz zeuden. Inguruko aberatsak lapurreten biktimak izanik.

Hauetako lapur bat genuen Aldabika, Abartzuzako lapur famatua, XIX.mendeko azken hogeita bost urteetan kontaezinezko lapurketa eta odol isuririk gabeko azpikeriak egin zituen gizona.

Aranaratxekoa dugu bere delituzko akzio nabarmenena:

Goi Ametzkoa guztia karlistadaren amaiera ospatzen zegoen eta etxe boteretsu eta dirudunak salteiatzea zeukan pentsatuta Aldabikak. Urbasako mendizerra zeharkatu ondoren, Aranaratxe ondoan jarri zen, eta jai-eguna zela eta jende guztia elizan zegoenez, aurkitutako guztia garbitu zuen.

Baina bat-batean, kanpandorrean zegoen herriko batek ikusi zuen, eta baita herriko jende guztiari abisua eman ere. Azkar atera ziren lapurraren atzetik, baina honek ardoa eta pisu gutxiko gauzak zeramanez, hanka egin zien.

“La Aldaya” basarteko pago baten hutsunean ezkutaturik geratu zen hainbat egunetan, bere ogi eta ardoari ekinez.

Egun horietako batean, herriko nekazari, ikazkin, ehiztariek... hostoen azpian zepoak ipini zituzten, Aldabikak zuhaitzeko zirrikitu batetik begiratzen zituela sumatu gabe.

Hurrengo egunean, Aldabikak beste ezkutaleku baten bila hasi zen, baina oso azkarra zenez, lapurra, makila baten laguntzaz aurrean zeuzkan hostoak makilaz kentzen hasi zen. Baina halako batean konturatu gabe harrapatuta gelditu eta lurrera erori zen.

Minez garrasika hasi zen eta handik etxera bueltatzen ari zen ikazkin bat oihuak entzun zitucenean hurbildu eta lapur famatua zela antzematean, korrika joan zen herrikoei berria ematera.

**Azkenean harrapatu zuten, baina gaua eroria zenez mendian lotan geratu ziren, guztiok ametsetan ari zirela, gaueko isiltasuna beraien kantuekin hautsi zuten sorginak agertu ziren, “Baga, biga, higa, laga, boga, sega, sai, soi, bele, arma, tiro, pum!” kantatuz eta herritarren artean dantzatuz.*

Eguna iritsi zenean, Lizarrako epaitegira eramane zuten Aldabika, non, kondenatua izan zen. Gero herriko enparantzan bizirik errez.

*Horixe da gaur egungo antzezpenetan egiten dena. Benetan beste bukaera ezberdin bat izan baitzuen. Dirudienek hotzak hil zen mendiko borda batean.

6.C. LIZARRAKO INAUTERIETAKO PERTSONAIK

-PALOKIA EDO MOZORROTEA

Soldaduskara joan behar ziren gazteak mozorrotzen ziren horrela, baina jantzi hori inauterietan soilik erabiltzen zen. Zakuak erabiliz mozorrotzen ziren, barrutik kanpoaldea ikusten zelarik, buru gainean zeramaten bahea estaliz. Alkandora lotzen zuten gerri inguruan, maukak zintzilik geratzen zirelarik. Beraien besoak zakupean askeak eramatean, palokiek, bahea kokotetik goreneraino igo zezaketen, buruhandi itxura zuena erraldoiarena izatera pasatuz. Bizkarrean, zeharka, besoen antzera alde banatan irtenez, makila zeramaten, jendea zirikatzeke eta astintzeke, bira eginez gero batik bat. Inauterietako igande, astelehen eta asteartez, goiz eta arratsalde, palokiak Lizarrako kaleetan zehar abesten ibiltzen ziren:

“URI URI URA!
NORK PUSKATU DU ONTZIA?
URI URI URA!
BERAK ORDAIN DEZALA”

-ZINTZARROTTA

Inauterietan, Ituren eta Zubietako joaldunak zintzarrotsez bideetan barrena aritzen diren bezala, Lizarran ere badabilta.

Euskal Folklorean zintzarrotsak duen esanahia adarra jotzearena da, eta alarguntzen ezkontzetan egiten ziren toberak, bigarren ezkontzak zuen iritzi txarragatik. Abisu gisa eta mesprexuz ere zitzairen kanpotik herrira bizitzera etorritakoei.

Guzti horrekin batera parranda zentzua ere badu, talde mozorrotuen ekintza izanik. Zintzarrotsa folkloreko beste ekintza batzuekin nahasten da zenbait inauteriekin beraiekin ere, ekitaldia jendaurrean edo egun argiz ematen denean, guztiak ongi mozorrotuta agertzen direlarik.

-ERRAUTSA ETA PIKUA

XX. mendearen hasieran inauteriak ospatzeko bi joera bereiz ziren Lizarran. Batzuk toki itxietan; bazkideek eta, bertan afaldu ondoren jaia hasten zelarik. Besteek kalean ospatzen zuten, herri xeherean inauteria zen; hauek burukoz, zakuz, alkandoraz, eta mozorrotzen ziren.

Errautsa zen nahiena inauterietako parranda kalean ospatzen zutenentzat. Mozorrotuen artean taldekoentzat sutontzian gaztainak eramatea ohikoa zen. Mozorrotutariako beste batek soka zuen pikua zeraman eramaten zuen makilari lotua.

“AL HIGUICO AL HIGUICO
AL QUE LO COJA PALICO”

Pikuak haurrak tentatzen zituen. Baten bat pikua hartzeaz zegoela, sutontzia zeraman mozorrotuak eskutada errauts jaurtikitzen zion aurpegira.

Diotenez, errauts guda izugarriak izaten omen ziren.

BIBLIOGRAFIA

-LUR HIZTEGI ENTZIKLOPEDIKOA

· 3. Alea

-CUADERNOS DE ETNOLOGÍA Y ETNOGRAFÍA DE NAVARRA

·LIZARRAKO IHAUTERIAK
ALDABIKAREN IHAUTERIAK

·Lizarra Ikastola

-ETNOGRAFIA DE NAVARRA

·2.Alea

·Diario de Navarra / CAN

-LIZARRAKO, "Calle Mayor" Aldizkaria